

**Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenaren**

# **SORTZE-AGIRIA**

## **AURRETIK HITZ BI**

**G**ure herria hezkuntza esperientzietan aberatsa izan da eta aberatsa da gaur egun ere. Oztupoak oztopo, herri mugimenduaren bidez urrats garrantzitsuak eman dira euskal hezkuntza sistemaren eraikuntzaren ildoan.

**E**uskal Herriak Bere Eskola herri ekimenaren sorrerak urrats berri bat izan nahi du bide horretan. Honako ekarpena egin nahi du, hain zuzen ere, herri ekimenak: Euskal Herriko herri eta auzoetan dauden hezkuntza beharretatik abiatuta, herri eta auzo bakoitzean euskal hezkuntza sistamarantz urrats praktikoak eragingo dituen mugimendua sortzea. Izan ere, herri-ikuspegitik abiatutako tokian tokiko lan praktikoa funtsezkoa dela deritzogu. Eta elkarrekin (ikasleak, irakasleak, gurasoak zein herritarrak; haur hezkuntza, lehen hezkuntza zein bigarrenekoak; ikastetxe batekoak zein bestekoak) urrats berriak emateko aukeran sinesten dugu.

**H**onako agiri honetan biltzen dira Herri Ekimenaren nortasuna, helburu eta lan-ildoan inguruko nondik-norakoak.

## **BAGA IZENA ETA IZANA**

### **Izana**

Euskal Herriak Bere Eskola hainbat herrietako eta auzoetako herri ekimenez osaturiko hezkuntza arloko Herri Ekimena da. Bere iharduera-esparrua Euskal Herria da.

Herri eta auzoetako ekimen horietako bakoitzak bere izaera propioa badauka ere, elkarren arteko helburu, zeregin eta ezaugarri amankomunak ditugu (sortze-agiri honetan zehazten direnak, hain zuzen ere). Helburu horietarantz urratsak emateko eta aipatu zereginen inguruko elkarlana bideratzeko asmoz, tokiko ekimen horiek Euskal Herriak Bere Eskola Herri Ekimenean batzen gara. Beraz, herri bakoitzak bere ildo propioa du, eta koordinaketa nazionala guztion arteko elkartrukea eta elkarlana bideratzeko tresna da.

Herri ekimena edo ekimen herritarra da ikasle, irakasle, guraso zein herritarrez osaturiko eragilea den aldetik, ikastetxetatik eta herrietatik era herrikoian sortutakoa. Herri eta auzo

bakoitzari, zein oro har Euskal Herriari, hezkuntza eredu propio bat dagokiola pentsatzen duen orok dauka bere lekua Euskal Herriak Bere Eskolan.

## **Izena**

Izanarekin bat, izen berezia proposatzen dugu :

- Herri bakoitzak izen propioa dauka, “-----k Bere Eskola” formula erabilia.
- Herri guztiak batzen dituen Herri Ekimenaren izena “Euskal Herriak Bere Eskola” da.

Era honetan, ekimen amankomunetan “Euskal Herriak Bere Eskola” erabiliko da; tokian tokikoetan, berriz, “-----k Bere Eskola. Euskal Herriak Bere Eskola”.

## **BIGA HELBURUAK**

### **Herri Bakoitzak Bere Eskola**

Euskal Herriak Bere Eskola osatzen duen tokiko ekimen bakoitzaren helburua herri horren zein bertan bizi diren biztanleen nahi, desira eta beharrei erantzuna emango dien hezkuntza eredu propioa da.

Herri bakoitzak behar duen hezkuntza eredu eraikiz, Euskal Herriak behar duen hezkuntza eredu eraikitzen ariko gara.

### **Euskal Herriak Bere Eskola**

Euskal Herriaren eskola, hau da, gure gizartearen eta berau osatzen dugun gizabanakoen (gizabanako guztien) nahi, desira eta beharrei erantzuna emango dien hezkuntza sistema propioa, da gure xedea.

Hezkuntza sistema propio hori beharra, nahia eta eskubidea dela pentsatzen dugu.

Herri mugimenduaren ekinaren ekinez hezkuntza sistema propio horren aldeko urrats garrantzitsuak eman direlakoan gaude. Halaber, urrats berriak Herri Mugimenduaren eskutik etorriko direlakoan gaude.

## **HIGA ZEREGINAK**

Euskal Herriak Bere Eskolak, eta berau osatzen duen tokiko ekimen bakoitzak, honako zeregin hauek bere egiten ditu:

### **Hezkuntza eredu propio baten aldeko Herri Mugimendua sustatzea**

Hezkuntzaren inguruan emandako urratsak Herri Mugimenduari esker eman direla kontuan izanik, EHBEren zeregin nagusia herri eta auzoetan hezkuntzaren inguruko mugimendua sustatzean eta bere magalean biltzean datza.

### **Herri bakoitzak dituen hezkuntza-beharrak jorratzea**

Herri edo auzo bakoitzean hezkuntzaren inguruan dauden nahiak eta beharrak jorratzeko asmoa dauka EHBEk, helburu zehatz eta eskuragarriak finkatuz eta horien inguruko lan praktikoa eginez. Halaber, hurbilen dauzkagun helburu txiki horien eta urrutiago geratzen den helburu orokorraren (hezkuntza sistema propioa) arteko zubia izan nahi du.

### **Herri bakoitzean lanean ari diren sektoreen arteko elkarlana sustatzea**

Herri bakoitzean badira hamaika lagun hezkuntzaren inguruko kezka daukatenak eta lan bat edo beste garatzen dutenak (irakasleak, ikasleak, gurasoak, ikastetxeak). Herri bakoitzean dauden hezkuntza beharren inguruko elkarlana bideratzea da EHBEren beste zeregina.

### **Hezkuntza-proiektu euskaldunak bultzatzea**

Gaur egun herrietan martxan diren hezkuntza-proiektu euskaldunak, hala sare publikokoak nola kanpokoak, hala hezkuntza formalekoak nola ez-formalekoak, bultzatzeko asmoa dauka EHBEk.

## **LAGA EZAUGARRIAK**

Euskal Herriak Bere Eskolak, eta berau osatzen duten tokiko ekimenek, honako ezaugarri nagusi hauek dituzte:

### **Herritarra**

Ikastetxe zein kaleko herritarrak biltzeko asmoa du. Euskal hezkuntza sistemaren aldeko herritarren bilgunea izan nahi du<sup>1</sup>.

### **Anitza**

Euskal Herriari hezkuntza sistema propioa dagokiola pentsatzen duen orori dago irekia.

### **Estamentuarterkoa**

Ikasleak, irakasleak, gurasoak zein herritarrak, guztien ekarpena da garrantzitsua eta beharrezkoa.

### **Sektorearterkoa**

Lehen hezkuntzakoak, bigarren hezkuntzakoak zein lanbide heziketakoak; sare publikokoak, pribatukoak zein ikastoletakoak; hezkuntza formalekoak nola ez-formalekoak; horietan guztietan lanean dabiltzan lagunak bildu nahi ditu EHBEk.

---

<sup>1</sup> Ez da, zentzu honetan, elkarte ezberdinen arteko bilgune gisa aurkezten.

## **Praktikoa**

Aldarrikapen orokorrak plazaratzeaz gain, EHBEk helburu lorgarriak finkatu eta horien inguruko lan praktikoa eta eraginkorra burutu nahi du.

## **BOGA LAN-ILDOAK**

Euskal Hezkuntza Sistema (maila nazionalan) eta herri bakoitzak behar duen hezkuntza eredua (maila lokalean) helburu orokorrak dira. Praktikan urratsak eman nahi baditugu, ordea, lan-ildo zehatzak jarri behar ditugu martxan.

Herri bakoitzak bere errealitatearen arabeko lan-ildoak izango ditu.

Herri ekimenak maila nazionalan dituen lan-ildoak, herrietako lan-ildoen sintesia izango da<sup>2</sup>. Sintesi hori honako ardatz hauen arabera antolatuko delarik:

- **Euskara**
- **Euskal Curriculuma**
- **Eredu Pedagogikoa**
- **Autonomia eta Parte Hartzea**
- **Heritartasuna**

## **SEGA FUNTZIONAMOLDEA**

### **Herri bakoitzak berea**

Herri bakoitzak bere funtzionamolde propioa zehaztuko du: bileren maiztasuna, lan-moldeak eta bestelakok.

### **Elkartrukea eta elkarlana**

EHBEren egituraren bidez, elkartrukea eta elkarlana landuko dira.

Batetik, tokian toki dauden esperientzia, ideia eta proposamenen elkartrukea ahalbidetuko da.

Bestetik, helburu amankomunei begirako kanpaina eta dinamika nazionalak landuko dira.

### **Hizkuntzari dagokionez**

Euskara izango da barne- zein kanpo-harremanetarako hizkuntza nagusia. Beharrezkoa denean, gaztelerazko eta frantseserazko itzulpenak landuko dira.

---

<sup>2</sup> Plangintza proposamenean azaltzen den bezala, Azaroaren amaierako mintegien bidez Lan-ildoen Taula Nazionala osatuko dugu, herrietako lan-ildoen bilduma eginez.

# ZAI

## ANTOLAKETA

Herri bakoitzak bere antolaketa propioa izango du, tokian toki lantzen diren ereduaren inguruko elkartrukea emango delarik. Amankomunean lortzeko antolaketa-esparruak eta tresnak dituzte EHBE osatzen duten tokiko ekimenek:

### **Deialdi orokorrak**

Ikasturteko plangintza amankomuna lantzeko, edota garrantzitsuak diren gaien inguruan aritzeko eta erabakiak hartzeko, EHBEaren parte hartzen duten kide guztien parte hartzea bermatzeko deialdi orokorrak burutuko dira (gutxienez ikasturtean behin). Deialdi hauek forma ezberdinak hartu dezakete, eraginkorrak izan daitezke:

- Lekuari dagokionez: deialdi bakar bat, edo zonaldekako deialdiak.
- Metodologiari dagokionez: batzar izaera edo mintegi izaera erabiliz.

### **Koordinaketa Batzarra eta Batzorde Eragilea**

Koordinaketa Batzarrean tokiko ekimen guztietako kide banak parte hartuko du gutxienez. Bertan, amankomunak diren gaiak jorratuko dira, eta EHBEaren ildoaren gaineko erabakiak hartuko dira. Ikasturtean zehar gutxienez sei aldiz bilduko da. Gai-ordenak eta aktak tokiko ekimen guztiei igorriko zaizkie.

Batzorde Eragilea 10 bat kidez osaturiko gune operatiboa da. Proposamenak lantzea, koordinaketa batzarrean edo deialdi orokorretan hartutako erabakiak gauzatzea, komunikazio iraunkorra bermatzea edota bitarteko ezberdinak kudeatzea (diru-kutxa, ideiola, aldizkari telematikoa) dira bere eginkizunak. Hilabetean bitan bilduko da.

### **Diru-kutxa**

Maila nazionalean Kutxa amankomuna egongo da, tokiko ekimenen arteko koordinazioak zein elkarlanean garatuko ditugun ildoen garapenak suposatzen duten gastuari aurre egiteko asmoz. Ikasturtero dauden diru-sarrera eta -irteeren inguruko informazioa helaraziko zaie tokiko ekimen guztiei.

### **Ideiola**

Ideiola (Ideien ola) Euskal Herriak Bere Eskola osatzen dugun herri ekimenentzako zerbitzu berezi eta interesgarria da. Aurrera atera daitezkeen ekimenak, egin daitezkeen proposamenak, esposaketak, adituekin harremanetan jartzeko bideak eta bestelakoak eskainiko ditu. Informazio eta baliabide horiek guztiak hainbat lekutik bilduko dira:

1. Herrietan sortzen diren esperientziak, ideiak, ekimenak eta proposamenak.
2. Irakaskuntzako ala gizarteko eragileek bultzatzen dituzten ekimen, proposamen eta bestelakoak.
3. Ikasturteko plangintzaren baitan Euskal Herriak Bere Eskolak propioki landuko dituenak.

### **Aldizkari telematikoa**

Aldizkari telematikoa EHBEaren komunikazio tresna nagusia izango da, hasiera batean behintzat. Irakaskuntzaren inguruko berriak, herri ezberdinetan lantzen ari diren ekimenen inguruko informazioa, baliogarriak izan daitezkeen zerbitzuen inguruko informazioa eta bestelakoak bilduko ditu.

## **ZOI**

### **IZAERA JURIDIKOA<sup>3</sup>**

Izaera juridikoak helburu instrumentala baino ez dauka, diru-laguntzak lortu eta kudeaketak egiteari begira. Izan ere, asmoa ekimen herritarra sortzea baita, freskoa eta dinamikoa, eta ez goitik behera araututako zer bait.

Izenaren kasuan bezala, herri ekimenaren koordinaketa-izaerari helduko diogu izaera juridikoa zehazterakoan. Era honetan, hala nahi duten herriek euren legeztapen propioa egingo dute, bere estatutu propioekin. Herri ekimena herri horien federazioaren bidez osatuko da. Formula egokiena elkarte kulturalarena izango da.

## **BELE**

### **DIRU-ITURRIAK**

#### **Herri bakoitzak berea**

Herri bakoitzak bere diru-iturriak antolatuko ditu diruzaintza plangintza baten bidez, dituen gastuei aurre egiteko asmoz. Tokian toki erabiltzen diren formulen berri emango da koordinaketaren bidez, era horretan ideiak izateko.

#### **Diru-kutxa**

Maila nazionaleko diru-kutxak honako iturri hauetatik edango du:

- Herri bakoitzaren ekarpena (urterokoa)
- Diru-laguntzak
- Jaialdi eta bestelakoak

Diru-sarrera eta -irteeren berri emango da ikasturtero.

---

<sup>3</sup> Arlo hau adituekin landu beharko da, formula egokiena zein den ebazteko.